

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Hornitzaileei egiten dizkiogun erosketak, diseinua, eraginkortasuna, azkartasuna, bezeroarentzako arreta eta produktuen prestaketa dira gure balio-proposamena ekoizteko egin behar ditugun funtsezko jarduerak.

Funtsezko beste prozesu bat produktua edo zerbitzua entregatzea da.



Bezeroei balio-proposamena eskaini ahal izateko, katalogo bat dugu, digitala zein fisikoa, eta bertan jostailuen eta elikagaien eskaintza desberdinak eskainiko ditugu.

## **Katalogoaren diseinua**

Lehen esan dugun bezala, bi eskaintza mota egongo dira, alde batetik elikagaien eskaintzak eta bestetik jostailuenak; beraz, katalogoa 2 ataletan banatuta egongo da.

Eskainiko ditugun jaki eta jostailuetarako, Elikadonaren (elikadura) eta Euskotoyren (jostailuak) laguntza izango dugu.

Katalogo honekin hainbat eskaintza eta deskontu eskainiko ditugu. Elikagaietan, zehazki, sasoiko produktuak sustatu nahi ditugu eta produktu horietan deskontua egingo dugu.



## **Eraginkortasuna**

Gure bezeroei arreta modu egokian, ahalik eta azkarren eta banan-banan ematea, gure langileen gaitasun profesionala eta arreta ona bermatuz izango litzateke.

## **Bezeroarentzako arreta-zerbitzua**

Bezeroaren arreta Gasteizko lokal fisikoan baino ezingo dugu egin.

Beste aldetik, web-gunetik eta sare sozialetik arreta emango dugu baina bakarrik on-line moduan.

